

UEMAren Berripapera

UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

URTEKARIA
2025

Euskarak justizia behar du



Zazpi udal gehiago
UEMAren lurgunera

Lurralde estrategia euskararentzat
Hizkuntza politika berria aldarrikatu dute arnasguneei
buruzko nazioarteko konferentzian 8

Norantz doa euskara?
2036an euskararen egoera zein izango den ikertu eta
aurreikusi dute, proiektio demolingüistikoa eginda 10

Hezkuntzan eragitea, giltzarria
Herriarrak kontzientziatzeko hezkuntza ezinbestekoa
da, eta horretarako hiru proiektu ditu UEMAK 14

UEMAren Berripapera. Urtekaria, 2025.



Argitaratzailea:

UEMA. Udalerrri Euskaldunen
Mankomunitatea.

Lege Gordailua:
BI-738-2013

Bulegoak

AZPEITIA

Helbidea:
Enparantza nagusia 11
Azoka Plaza, 6. bulegoa
20730 Azpeitia, Gipuzkoa.
Telefonoa: 943 81 66 99.

AULESTI

Helbidea:
Donibane enparantza 1
48380 Aulesti, Bizkaia.
Telefonoa: 946 27 91 95

OIARTZUN

Helbidea:
Mendiburu kalea, 14
Landetxe eraikina, 2. solairua,
20180 Oiartzun, Gipuzkoa.
Telefonoa: 943 26 03 72

Koordinazioa:

koordinazioa@uema.eus

Administrazioa:

administrazioa@uema.eus

Komunikazioa:

komunikazioa@uema.eus

Webgunea:

www.uema.eus



Martin Aramendi,
UEMAko
lehendakaria

Aldatzeko sasoia

Denak du bere sasoia eguzkipean. Ruper Ordorikari entzun diogu azken diskoan. Guztia datorrela bere orduan. Ereiteko ordua dela batzuetan, eta biltzekoa besteetan. Bukatzeaz den urteari begira, antzekoa sentitzen dugu UEMA. Hainbat egitasmo abiarazi ditugu, sendotu ditugu lehendik genituen ildoak eta ekimenak, eta mugarri berriak ere agertu dira.

Udaberrian, euskarazko ikus-entzunezkoak zabaltzeko hitzarmena sinatu genuen lehen aldiz EITBrekin, eta euskararen egoera ulertzeko gakoak hamaika bideo labur eta hezitzailearen bidez zabaldu genituen lau haizetara, Hamaika Telebistarekin elkarlanean.

Udan, 2036an euskararen egoera zein izango den aurreikusten duen ikerketa aurkeztu genuen: proiektio demolinguistikoa. Ondorioek alarma gorriak piztu zituzten, eta ikerketak oihartzun handia izan zuen.

Euskararen aurkako oldarraldiak ez du etenik izan urte osoan, baina uztailean bereziki kolpe gogorra jaso genuen. Euskara lehenestek hizkuntzen koofizialtasuna urratzen duela ebatzi zuen Espainiako Auzitegi Gorenak, eta EAEko udal legearen hainbat artikulua baliogabetu zituen. Epaia salatzeko eta euskararentzat justizia eta lege-babesa eskatzeko deia egin genuen, eta herriz herri milaka herritarrek egin zuten bat deialdiarekin.

Udazkenean, arnaguneei buruzko nazioarteko lehen konferentzia antolatu genuen, eta arnaguneei euskararen biziberritze prozesuaren motor gisa hartzen dituen lurralde estrategia behar dugula izan zen ondorioetako bat.

Beraz, urte berrian ere badugu lana: herritarren kontzientziaioan eragitea, euskararentzat benetako lege babesa bermatzea eta egoera irautiliko duen hizkuntza politika berria adostea, lurralde estrategian oinarrituta. Aldatzeko sasoia baita orain, berandu izan baino lehen.

AURKIBIDEA

Euskararentzat justizia eta lege babesa eskatu dute milaka herritarrek	3	13	Finantza erakundeekin hitzarmena
Zazpi udalerrri gehiago UEMAren lurgunera	6	14	Hezkuntza komunitatea, giltzarria kontzientziaioan
Arnaguneei hizkuntza gutxituen biziberritzean, nazioarteko konferentzia	8	16	Salto! udalekuak: inertziatik kontzientziara
Proiektio demolinguistikoa: euskara 2036an	10	17	Iñaki Arregi ikerketa beka: gazteak ikerlari eta ikergai
Euskararen egoera, bideo laburretan azalduta	12	20	Laburrean
		22	UEMAren urtea begirada bakarrean

Justizia, lege-babesa eta arnasa euskararentzat

“Hizkuntzak ez dira galtzerdiak bezala galtzen; desagerrarazi egiten dituzte”

Espainiako Auzitegi Gorenaren epaia ezagutu eta berehala, UEMAREN zuzendaritza batzordeko kideek agerraldia egin zuten uztailaren 17an Zarautzen. ‘Euskarak justizia behar du’ adierazpena irakurri, epaiaren larritasuna nabarmendu eta uztailaren 19an herriz herri kalera ateratzeko deia egin zuten, euskaraz aritzen diren udalei babesa adieraztera eta epaia salatzerara. “Euskara bigarren mailako hizkuntza izatera kondenatu dute beste behin ere, euskararen ofizialtasuna bera ere auzitan jarri. Epaia larria da, eta behar du berehalako erantzuna”, adierazi zuten.

UEMAREN deialdiak egundoko erantzuna izan zuten, eta 100 herritan milaka herritar atera ziren udaletxeen aurrera. Zenbait alderdi eta sindikaturen eta euskalgintzako eragile ugariaren babesa izan zuen deialdiak.

ETBko albistegiaren lerroburu eta gai nagusia izan zen eguerdian zein gauean, eta baita hurrengo eguneko hiruzpalau egunkariaren gai nagusia ere, azalotan bertan.

Handik bost egunera, berri, berrehundik gora alkatek eta udal ordezkariak salatu zuten epaia Bilbon, Euskalgintzaren Kontseiluak deituta. EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren egoitzaren aurrean egin zuten agerraldia, eskuetan aginte makilak eta zumeak zituztela, epaia euskal erakundeen erabaki demokratikoaren aurkakoa ere badela salatzen.



UEMAREN deialdiarekin propio prestatutako pankartak erakutsi zituzten herriz herri askotan. Argazkian, Lezoko udal ordezkariak, herritarrekin batera.



Herriz herri, kartelak eskuetan hartuta, epaia salatzen hainbat leku erakutsi zituzten milaka lagunek. Argazkian, Bakaikoko elkarretaratzea.

UEMAren adierazpen instituzionala

Euskarak justizia behar du

UEMAren izenean, Martin Aramendi lehendakariak eta zuzendaritza batzordeko zenbait kidek uztailaren 17an Zarautzen irakurritako adierazpena.

Euskara bigarren mailako hizkuntza izatera kondentatu dute, beste behin ere. EAEko udal legearen dekretutik balio gabetutako artikulua gehienak atzera bota ditu Espainiako Auzitegi Gorenak eta, euskara lehenetsiz gero, hizkuntzen koofizialtasuna urratzen dela ebatzi du.

Euskara, ordea, ez da beste hizkuntza ofizialen parekoa. Ezta ofiziala den lekuetan ere. Europako Hizkuntza Gutxituen Sareak adierazi duen bezala, euskara larrialdi linguistikoan dago. Baita minorizazio gorrian ere, azken ikerketek erakutsi duten moduan. Izan ere, euskara jazarria, debekatua eta isildua izan da mendeetan zehar. Hizkuntzak ez dira galtzerdiak bezala galtzen. Desagerrarazi egiten dituzte. Euskararekin ere ahalegindu dira, eta gutxitu dute, baztertu dute, eta baita bigarren mailakoa bihurtu ere. Hori da gaur egungo egoera ulertzeko abiapuntua.

Euskal gizarteak eta euskal erakundeek, ordea, gehiengo zabalarekin, euskarak dagokion lekua izan behar duela erabaki dute. Gutxitutakoa lehengoratzea. Normalizatzea. Biziberritzea. Horretarako ezinbestekoa da euskara lehenetsia, eta euskararen aldeko erabakiak hartzea, elebitasun simetrikoa gaindituta. Parekidetasunik ezean, berdintasuna heriotz zigorra baita. Oreak ez du balio lurrean zaudenean. Horregatik lehenesten dugu euskara. Euskaldunak garelako. Euskara delako gure hizkuntza. Euskaraz garelako.



Eta euskaraz izaten jarraitu nahi dugulako. Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea gara, ez Udalerrri Elebidunen Mankomunitatea. Euskarari dagokion lekua ematea euskararentzat justizia egitea baita. Zapaldua eta gutxietsia izan denari duintasuna itzultzea, eta egindako kaltea konpontzeko bidea jartzea.

Horregatik, udalerrri euskaldunentzat mugarrria izan zen EAEko udal legea, elebitasun simetrikoa gainditzeko eta euskara lehenesteko aukera eman zuelako. Ezagutu berri dugun epaiak, ordea, udal legea kimatu eta ebatzi du ezin dela "neurririk hartu hizkuntza koofizialeko bat gailentzeko, horrek berak urratu egingo lukeelako koofizialtasuna".

"Euskara gutxitu, baztertu eta bigarren mailakoa bihurtu dute. Hori da gaur egungo egoera ulertzeko abiapuntua"

Larria da epaia. Euskal gizartearen eta euskal erakundeen erabaki demokratikoaren aurkakoa ez ezik, azken hamarkadetakoa hizkuntza-politiken aurkakoa ere badelako, eta euskara beraren ofizialtasuna ere zalantzan jartzen duelako, ondoan gazteleraren makulua ez duenean. EAEko udal legeak hizkuntza eskubideak urratzen dituela dio Espainiako justiziak, beste behin ere euskaldunon hizkuntza eskubideak alde batera utzita. Gainera, bereziki udalerrri euskaldunei eta euskaraz aritzen diren udalei eragiten die.

Horregatik, UEMA osatzen dugun udal guztien eta horiek ordezkaten duten lurgune euskaldunaren izenean, eredu izatea eta erantzukizunez jokatzeko dagokigula gogoratu nahi dugu, eta euskaraz jarraituko dugula adierazi. Izan ere, minorizazio gorrian eta larrialdi linguistikoan dagoen hizkuntzari dagokion lekua ematea dagokigu. Justizia behar du euskarak.

ADIERAZPENA, OSORIK. Adierazpenaren bertsio laburra da hau. Osoa hemen irakur daiteke:

labur.eus/U19-adierazpena

UEMAko udal berriak

Zazpi udal gehiagorekin zabaldu da aurten UEMAren lurgunea

Euskararen lurgunea handitzea eta horretarako UEMA bera sendotzea da Udaleri Euskaldunen Mankomunitatearen helburuetako bat. Zentzu horretan, urte oparoa izan da amaitzean den hau ere, zazpi udalek erabaki baitute UEMAko kide izatea.

Ekainaren 14an Azkoitian egindako Batzar Nagusian, bost udal berri gehitu ziren UEMAra: Donamaria, Ibarangelu, Mundaka, Mutiloa eta Ormaiztegi. Oرائنتسو, berriz, abenduaren 13an Etxarri Aranatzan egindako batzarrean, Urdain eta Zeberio izan dira onartutako azken bi herriak.

120 udal eta 355.000 biztanleko lurgunea

Aurten UEMAra gehitu diren zazpi udal horiekin, 120 udalerrri dira gaur egun mankomunitateko kide, eta guztien artean 355.000 biztanleko lurgune euskalduna osatzen dute.

17 udalekin ekin zion bideari UEMAk 1991n, eta 2023an gainditu zuen 100 udalen langa. Harrezkero beste 20 udal gehitu dira, azken bi urteotan.



Donamaria, Ormaiztegi, Mutiloa, Ibarangelu eta Mundakako alkateak, maiatzean, UEMAko kide bihurtu ziren egunean.

Udalerrri euskaldunak gehitu eta UEMAren lurgunea handitu egin den arren, ordea, udalerrri horietako euskaldunen profila aldatu egin da azken urteotan. Horri erantzun ahal izateko eta erabileran eragiteko giltzarria da herritarren kontzientziazioa, besteak beste.

UEMAko kide izateko baldintzak

Udal batek derrigor bi baldintza bete behar ditu Udalerrri Euskaldunen Mankomunitera gehitzeko.

1 Udalerrriko euskara indizea %70etik gora izatea.

Datu soziolinguistikoa da, eta formula simple batekin kalkulatzen da, euskararen ezagutzari dagokion datuetan oinarrituta: $E + iE/2$ (euskaldunak + ia euskaldunak zati bi).

2 Erabaki politikoa: udalbatzarrak udal osoko bilkuran erabakitzea

Udalbatzarrak udal osoko bilkuran UEMAren estatutuak onartzea eta UEMAko kide izateko eskaera egitea da bigarren baldintza.



DONAMARIA. Nafarroa.

452 biztanle. Malerrekako herriak aho batez erabaki zuen UEMAko kide izatea, maiatzean. Euskaldunen indizea %89,2 da, baina udalerrri euskaldun askotan bezala euskaldunen profila aldatzen ari da, eta lehen hizkuntzaren eta etxeko zein kaleko erabileraren datuetan eragina du horrek.



IBARRANGELU. Bizkaia.

680 biztanle. Maiatzean erabaki zuen Busturialdeko herriak UEMAKo kide izatea. Euskara indizea %80,7 den arren, azken urteotan lehen hizkuntzaren eta etxeko erabileraren bilakaera apaldu egin da, eta hizkuntza politikan jauzia egin nahi du udalak.



MUNDAKA. Bizkaia.

1.828 biztanle. Maiatzean erabaki zuen UEMAKo kide izatea. Kostaldean dago Mundaka, Urdaibain. Udalerrri euskalduna da, baina alde handia dago euskararen ezagutzaren (% 68) eta kaleko (% 39) zein etxeko (% 25) erabileren artean.



MUTILOA. Gipuzkoa.

253 biztanle. Aho batez hartu zuen UEMAKo kide izateko erabakia Goierriko herriak, maiatzean. Euskara indizea %91,4 da Mutiloan, indize horrek behera egiten du lehen hizkuntzaren (% 70) eta etxeko erabileraren (% 52) datuak behatuz gero.



Ormaiztegi. Gipuzkoa.

1.266 biztanle. Aho batez onartu zuen Ormaiztegi ere UEMAKo kide izatea. Euskara indizea %76,9 duen udalerrri euskalduna da, baina euskararen nagusitasunik gabekoa, eta azken urteotako bilakaera ikusita euskararen erabilera areagotu nahi du udalak.



URDIAIN. Nafarroa.

642 biztanle. Sakanako herriak azaroan erabaki zuen UEMAKo kide izatea, aho batez. Euskara indizea %80,05 da Urdiainen. Ezagutzaren indize horrek, ordea, nabarmen egiten du behera kaleko erabileraren (% 36,4) datuekin alderatuta. Hori irauli nahi du udalak.



ZEBERIO. Bizkaia.

1.081 biztanle. Arratia-Nerbioi eskualdeko herria da Zeberio. Gehiengoz onartu zuen UEMAKo kide izatea, azaroan. Euskara indizea %80,2 du baina lehen hizkuntzaren (%45,82) eta etxeko erabileraren (%33,92) datuak askoz apalagoak dira.



Konferentzia antolatu eta babestu zuten erakundeetako ordezkariak hartu zuten hitza konferentziaren hasieran: Azpeitiko Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Coppieters Fundazioa, Udako Euskal Unibertsitatea, Soziolinguistika Klusterra eta UEMAko ordezkariak, zehazki.

Euskarak lurralde estrategia behar duela nabarmendu dute arnaguneei buruzko nazioarteko konferentzian

Arnaguneeek hizkuntza gutxituen biziberritzean duten garrantzia aztertu zuten urriaren 16an eta 17an Azpeitian egindako nazioarteko konferentzian.

UEMAk, Soziolinguistika Klusterrak, UEUK eta Europako Coppieters fundazioak antolatutako konferentziak 250 lagun elkartu zituen, bi eguneko egitarau mamitsuaren hitzaldiak entzuteko. Soziolinguista, hizkuntzalari, ikerlari, teknikari eta erakundeetako ordezkariekin batera, nazioarteko zein Euskal Herriko hainbat eragile izan ziren.

Arnaguneeen egoeraz eta garrantziaz ez ezik, Gales, Kanada, Voivodina, Katalunia eta Hego Tiroleko hizkuntzen eta hizkuntza politikez aritu ziren nazioarteko hizlariak. Euskal herritarrek, berri, arnaguneeen bilakaera, egoera eta euskararen biziberritzean duten eragina aztertu zuten, hainbat alorretatik. Alaitz Aizpuru, Jon Aizpuru, Asier Basurto, Iñaki Lurrebaso, Garikoitz Goikoetxea eta Iratxe Retolaza aritu ziren hizlari. Aitor Aldasorok eta Jabi Arakamak, azkenik, Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika izan zuten mintzagai.

Arnaguneeak babesteko eta sendotzeko premia

Bi eguneko jarduna amaitzeko, konferentziaren ondorioak irakurri zituzten antolatzaileek: "Arnaguneeak biziberritze prozesuaren motor gisa hartuko dituen lurralde estrategia behar dugu, gainbehera iraultzeko".

"Arnaguneeak euskararen biziberritze prozesuaren motor gisa hartuko dituen lurralde estrategia behar dugu"

Horretarako, arnaguneeek lege babesa behar dutela adierazi zuen Miren Segurola UEMAren koordinatzaileak: "Lurralde estrategian oinarrituko den hizkuntza politika berria adostu eta martxan jarri behar dugu, arnaguneean hasi eta eremu erdaldunenetara iritsiko den lurralde estrategiarekin. Horretarako, arnaguneeek lege babesa behar dute. Hizkuntza politika aurrerakoiak egitea ahalbideratuko duen lege babesa. Erdarek janda dituzten funtzioak berreskuratzeko, hiztun komunitatea ahaldundzeko, hiztun berriak erakartzeko eta eremu horien garapena sustatzeko".

KONFERENTZIAKO MATERIAL GUZTIA.

Hitzaldi guztien bideoak, hizlariak erabili zituzten aurkezpenak, bi egunetako argazki bilduma, hedabideek argitaratutakoaren hemeroteka eta UEMA egindako hitzaldien kronikak:



labur.eus/ANK-bilduma

Arnasguneak, Nazioarteko Konferentzia

Hizkuntza politika lurraldeka lantzeko proposamena

Nazioarteko Konferentzian aurkeztutako lurralde estrategiak oinarri argia du: "Lurralde guztietan eragin behar da, noski, baina arnasguneei eusteak izan behar du lehentasuna".

"Duela hamarkada batzuk lehentasuna eman zitzaizen belaunaldi berriei, umeetan inbertitzea erabaki zen, efizienteena izango zelakoan. Adina erabili zen orduan irizpide moduan. Estrategia horrek emaitzak eman ditu. Lorpen hori badaukagu. Orain, proposatzen dut hurrengo jauzirako, pizkunderako, beste ardatz bat adostea, eta ardatz hori zonalde euskaldunagoei lehentasuna ematea da". Horixe Iñaki lurrebaso soziologoak eta UEMAKo ikerketa teknikariak arnasguneei buruzko nazioarteko konferentzian emandako bere hitzaldian.

Baratze emankoragoak

Eremu euskaldunenean euskaldun berriak euskalduntzea efizienteagoa dela datuekin erakutsi ondoren, adibide bat jarri zuen, ipuin modura: "Lurralde batean gosetea dago. Ezaugarri desberdinetako lurrak dituzte, lur batzuk lantzeko errazagoak dira, eta beste batzuk zailagoak. Haziak lursail guztietan berdin botatzen dituzte. Baina azken uztetan ohartu dira lursail batek fruitu gehiago ematen duela: 5-6 aldiz emankoragoa da, beste lursail batzuekin alderatuta. Batzarrean bildu dira eta erabaki behar dute hurrengo uzta nola antolatu, gosetearan erdian. Zein lursail landu erabaki behar dute".



Iñaki lurrebasok Nazioarteko Konferentzian aletu zuen proposamena.

Hori hizkuntza politikara ekartzea proposatu zuen: "Efizientzia behar dugu, fruitu emankorak lortu behar ditugu. Lan bera eginda, emaitza hobekak lortuko ditugu, eta hori komeni zaigu. Horretarako lurralde estrategia baten beharra daukagu".

Estrategia horretan, "lurralde-eremu guztietan eragin behar da, noski, baina arnasguneei lehentasuna eman behar zaie. Zenbat eta lurralde euskaldunagoa orduan eta arreta bereziagoa behar du, lege babes handiagoarekin eta politika aurreratuagoekin". Horrela, eremu euskaldunenak gainerako eremuen euskalduntzerako baliabide eraginkoragoak bihurtu daitezkeela adierazi zuen.



Teknikariak, udal ordezkariak eta hizkuntza politiketako arduradunak, nazioarteko adituei adi. Rhian Hodges (Gales), Adrian Borka (Voivodina, Serbia) eta Elin Haf Gruffydd Jones (Gales) izan ziren bi egunez arnasguneen garrantziaz eta beraien herrialdeetako hizkuntza politikaz hitz egin zuten hoge adituetako hiru.

Besteak beste, hizkuntza gutxituak biziberritzeko arnasguneetan zergatik eta nola eragin behar den izan zuten hizpide. Batetik eta bestetik etorritako soziologoak, irakasleak, euskara teknikariak, euskaltzaleak eta hizkuntza politikako arduradunak izan zituzten entzuleen artean, adi.

Euskara 2036an: ia arnasmunerik gabe, eta euskaldun gehienak ingurune oso erdaldunean



IKERLANA. Norantz doa euskara?

Ikerlana osorik eta gaiari buruzko hemeroteka:

 labur.eus/EUS2036

UEMAren eskariz, 2036an euskararen egoera zein izango den aztertu du Siadeco ikerketa etxeak. Gertatzen ari diren aldaketa demografikoak kontuan izanda, oraingo joera soziolingüistikoak bere horretan jarraituz gero, eta euskararen egoeran eragiten duten gainerako faktoreek beste aldaketarik izan ezean, euskararen egoera 2036an zein izango den erakusten du ikerlanak. Orokorrean, galera aldi baten hasiera islatzen dute datuek.

Emaitzak oso kontuan hartzekoak direnez, eta egoerari aurre egiteko askoren arteko hausnarketa sakona eta elkarlana beharrezkoa denez, hainbat eragilerekin bildu da aurten UEMA, ikerketaren eta ondorioen berri emateko. Izan ere, lehenagoko beste datu eta ikerlan batzuen ildotik, euskara larrialdi linguistikoan dagoela erakusten du Siadecoren ikerlanak. Horregatik, eragile sozialei eta bereziki politikoei gaiari arduraz heltzeko eta euskara lehen lerrora ekartzeko eskatu die hilabete hauetan UEMAK.

Ikerlana uztailean aurkeztu zieten UEMAK eta Siadecok hedabideei, eta egundoko oihartzuna izan zuen. Albistegietako lehen minutuak eta egunkarietako lehen orrialdeak ere eskaini zizkioten gaiari.

Joera demografikoek eragina duten hizkuntzen bilakaeran, eta horri behatu dio batez ere Siadecoren ikerlanak: «Gero eta gehiago izango dira euskara lehen hizkuntza bakar gisa izango ez dutenak, erdaraz euskaraz baino erosoago egingo dutenak, eta baita euskara menderatzen ez duten euskal hiztunak ere».

Orokorrean, galera aldi baten hasiera islatzen dute Siadecok UEMAren eskariz egindako ikerlanaren datuek

Zazpi ondorio atera ditu Siadecok ikerlanaren datuak aletuta. Honako hauek dira, laburtuta:

1. Hezkuntzak eragin handia izan du euskararen ezagutzan, baina hazkuntza-erritmoa mantsotu egingo da.
2. Biztanleria euskalduna gero eta zaharragoa izango da.
3. Migrazio mugimenduek eragin handia izango dute.
4. Haurren eta gazteen artean atzerapauso argia aurrikusten da, eta azken hamarraldietako lorpen handienetakoa kolokan geratuko da (belaunaldi berrietan aurreratzea).
5. Eremu euskaldunena ahuldu egingo da, arnasmunerik ia desagertzeraino. Etxeko erabileraren, lehen hizkuntzaren eta nagusitasun eremuen bilakaerak argi erakusten dute.
6. Euskaraz gaztelaniaz baino erosoago moldatzen diren euskal hiztunen pisua gero eta txikiagoa da, eta horrek eragina izango du erabileran.
7. Etorkizun hurbilean gero eta gehiago izango dira nagusiki erdaraz inguratuta bizi diren euskal hiztunak, euskara lehen hizkuntza bakar gisa izango ez dutenak, edo euskara erabat menderatzen ez duten euskal hiztunak.

Udal koaderno demolinguistikoak

Euskararen egoeraren eta bilakaeraren argazki eguneratuak, herriz herri

Herriz herriko datuekin landutako koaderno demolinguistikoak argitaratu ditu UEMAK aurten lehen aldiz. Udal bakoitzak maitzean jaso zuen bere udalerriri dagokion 38 orrialdeko koadernoak.

120 koaderno sortu dira guztira: UEMAKo kide den herri bakoitzeko bat. Euskararen egoerari eta bilakaerari buruzko argazki eguneratua eskaintzen duten heinean, udal arduradunentzat, euskara teknikarientzat eta herriko euskalgintzako eragileentzat lanabes garrantzitsuak dira koadernoak, hizkuntza politikan non eta zergatik eragin argiago ikusteko.

Koadernoen helburua da udalerriko euskararen egoera eta bilakaera ezagutzeko oinarriko informazioa eskaintzea, ahalik eta modu ulerterrazenean. Horretarako, herriz herriko hizkuntza-egoeraren “argazki sintetiko ahalik eta esanguratsuen” osatu nahi izan du UEMAK.

Koadernoen eduki nagusia udalerriri buruzko datuen taulek eta grafikoek osatzen dute, gaika antolatuta, gai bakoitzaren azalpenekin.

Bost atal ditu koaderno bakoitzak: kokapen demolinguistikoa, hizkuntza-gaitasuna, erabilera, hizkuntza-bilakaera eta belaunaldi berrien sozializazioa.

Horiek herriz herri lantzeko, ohiko iturri nagusiak erabili ditu UEMAK: EUSTATen eta NASTATen biztanleria zentsuak, Inkesta Soziolinguistikoaren emaitzak (Eusko Jaurlaritza), eta kale-erabilera neurketak (Soziolinguistika Klusterraren datu-basea). Horiez gain, adierazle berriak ere sortu dira, jatorrizko iturri zuku gehiago atera nahian.

UEMAko kide den udal bakoitzak dagokion koadernoak jaso du, herriko datu zehatzekin

Koaderno bakoitzak izaera zirkularra du, herriko datuekin, udalarekin, euskara teknikariek eta tokian tokiko euskalgintzako eragileekin lantzea eta ekarpenekin osatzen joatea baita asmoa.

Udal koaderno demolinguistikoak



Euskararen egoera ulertzeko gakoak

Diagnostikoa, hamaika bideo laburretan

UEMAk eta Hamaika Telebistak hamaika bideo labur egin eta zabandu dituzte lankidetzan, euskararen egoera ulertzeko gakoak modu erraz eta dibulgatiboan ezagutarazteko.

Iñaki Lurrebasok euskalgintzaren eta hizkuntza politikaren oinarriak astindu zituen doktore tesia aurkeztu zuen 2023an. Euskararen benetako egoera ezagutzeko eta diagnostiko zehatzagoa egiteko hainbat giltzarri biltzen ditu tesiak, eta horiek ezagutarazteko dozenaka hitzaldi antolatu zituen iaz UEMAK, udalekin eta herrietako euskara elkarteekin batera.

Tesia modu erraz eta dibulgatiboan zabandu nahian, elkarlanean aritu dira hainbat hilabetez UEMA eta Hamaika Telebista, eta udaberrian aurkeztu zuten emaitza: hamaika bideo laburreko sorta, azken urteotako ikerketek nabarmentzen dituzten gakoen inguruan. GAKOAK izenburupean, euskararen egoera azaltzeko eta sareetan zabaltzeko hamaika bideo. Bakoitza bi minutu ingurukoa.

Hamaika Telebistako zuzendari ohi Iñaki Uriaren hasierako ideiarri tiraka, UEMA arduratu da bideoen gidioiez eta edukiaz. Irudiak eta animazioak, berriz, Hamaika Telebistako Nagore Sarasola diseinu arduradunak sortu eta ekoitzi ditu, edukia ahalik eta modu ikusgarrienean eta hezitzaileenean erakutsi ahal izateko.

Hamaika bideoen edukia

1. Diagnostiko berri baterako gakoak.

Euskararen egoeraz jabetzeko bidaia laburra.

2. Azken mendeko euskararen historia. Gainbehera, indarberritzea eta geldotze aroa.

3. Hizkuntza-gaitasuna. Hamabi lagunetik batek egiten du errazago euskaraz.

4. Erabilera.

Asko erabiltzen da euskara, dagoen gaitasunerako.

5. Atxikimendua. Euskararekiko jarrera positiboa daukagu euskaldunok.

6. Hizkuntza bilakaera. Indartsuagoa da eralduntzea euskalduntzea baino.

7. Galeraren arrazoiak.

Botere egiturek euskara ahultzen dute.

8. Belaunaldi berriak.

Gurasoak baino euskaldunago datoz haurrak.

9. Lurraldea eta nagusitasuna.

Testuinguruak ez dira neutroak.

10. Arnasguneen garrantzia.

Euskara arnasmunik gabe geratzeko bidean doa.

11. Etorkizunari begira.

Olatu berri baten beharra du euskarak.

Euskararen egoera ulertzeko gakoak



Helbide honetan edota azpiko QR kodean ikusgai:

labur.eus/GAKOAK-osoa





Azaroaren 20an Tolosan egin zuten hitzarmena sinatzeko eta aurkezteko ekitaldia. UEMArekin batera, bertan izan ziren Laboral Kutxa, Kutxabank eta Bankoa ABANCAko ordezkariak, eta hiru finantza erakunde horien bulegoak dituzten 59 udalerrri euskaldunetako alkateak eta zinegotziak.

Udalerrri euskaldunetan euskara lehenesteko konpromisoa berretsi dute UEMArekin hiru finantza erakundeek

Finantza alorrean euskararen erabilera areagotzeko hitzarmena sinatu eta aurkeztu zuten azaroaren 20an UEMAK, Laboral Kutxak, Kutxabank-ek eta Bankoa ABANCAk, horien bulegoak dituzten 59 udalerrri euskaldunetako alkateekin eta ordezkariekin batera Tolosan egindako ekitaldian. Hiru finantza erakundeek hizkuntza irizpideak adostu dituzte UEMArekin, eta udalerrri euskaldunetan dituzten bulegoetan euskara lehenetsiko dute.

2016an sinatu zuten hitzarmena lehen aldiz Kutxabank-ek eta Laboral Kutxak UEMArekin, eta 30 udalek egin zuten bat hitzarmenarekin. Bost urte geroago, hitzarmena eguneratu eta Bankoa ABANCA ere gehitu zen ekimenera. Aurten, hitzarmena eguneratu eta berretsi egin dute UEMArekin hiru finantza erakundeek, 59 udalekin batera.

Bezeroaren hizkuntza, kalitatea bermatzeko oinarritzkoa

Hitzarmenak bildutakoa ekarri zuen gogora UEMako lehendakari Martin Aramendik sinadura ekitaldian: "Batetik, kalitatearen osagai funtsezkoa da bezeroak harremanetarako hizkuntza hautatu

ahal izatea. Bestetik, bi hizkuntza ofizialen artean desorekan dagoen hizkuntza ahula da euskara eta, beraz, hau lehenesteko neurriak hartzea ezinbestekoa da, euskara zabaltzeko eta sendotzeko asmoz, beti ere bezeroek euskaraz ahoz eta idatziz jarduteko duten eskubidea modu argi eta garbian aitortuz".

"Bi hizkuntza ofizialen artean desorekan dagoen hizkuntza da euskara, eta lehenesteko neurriak hartzea ezinbestekoa da"

Hori guztia bermatu ahal izateko, UEMAK, finantza erakundeek eta udalek hainbat kontu hitzartu eta zazpi puntutan bildu dituzte. Besteak beste, elkarren arteko harremanak euskaraz izatea, bulegoetan eta bezeroekiko arretan euskara lehenesteko hizkuntza irizpideak onartzea, banka elektronikoan ere euskara lehenestea, edota herritarrei eta bezeroei hitzarmenaren edukiaren berri ematea bakoitzak bere ohiko komunikazio bideak erabilita.

Udalerrri euskaldunetarako hezkuntza proiektuak

Hezkuntza komunitatean eragitea, giltzarria herritarrak kontzientziatzeko



Ikasleekin, irakasleekin eta gurasoekin lantzen du UEMAK hezkuntza proiektua, bai ikasgeletan eta baita eskolatik kanpo ere. Argazkian, ikaztegiatako eskolako haurrak, gurasoak eta irakasleak, UEMAREN saio batean.

Euskararen inguruan herritarrak ahalduntzeko eta sensibilizatzeko ekimenak dira UEMAREN ildo nagusietako bat azken urteotan, hizkuntza ohituretan eragin ahal izateko. Horretarako, hezkuntza komunitatean lan egitea funtsezkoa delakoan, eskoletarako hiru egitasmo ditu UEMAK: arnaguneei eta udalerrri euskaldunei buruzko Hedatu hezkuntza proiektua, Euskara eta Kulturartekotasuna egitasmoa, eta harrera planetan hizkuntzaren ikuspegia txertatzeko proiektua.

Hezkuntza komunitatean eragitea gero eta garrantzitsuagoa da UEMARENtzat. Azken urteotako datuek eta joera soziolinguistikoez argi erakutsi dute ezinbestekoa dela ikasleak, irakasle-hezitzaileak eta gurasoak kontzientziatzea eta ahalduntzea, euskararen egoera zein den ikusaraziz, horrek gero hizkuntza jarreretan, ohituretan eta erabileran eragina izaten baitu.

Horregatik sortu zuen Hedatu hezkuntza proiektua UEMAK 2016an, hezkuntza komunitatean kontzientzia soziolinguistikoa indartzeko helburuarekin. Haurrek, gazteek eta nerabeek hizkuntzaren egoerari buruz kontzientzia izan dezaten, ezinbestekoa baita hiru esparrutan eragitea: irakasle eta hezitzaileak, ikasleak eta gurasoak. Horiek dira Hedatu hezkuntza proiektuaren hiru ardatzak.

Hezkuntza komunitatean eragitea gero eta garrantzitsuagoa delakoan, eskoletan lantzeko hiru egitasmo ditu UEMAK

Ardatz horiek sendotzeko, Euskara eta Kulturartekotasuna egitasmoa ere abian du UEMAK hainbat herritan, hezkuntza komunitatetik abiatu eta herri osora zabaldua. Kanpotik etorri eta euskaraz ez dakiten familien komunikazio beharrak asetuta, euskaraz funtzionatzen jarraitzea eta kulturartekotasuna lantzea dira oinarriak. Azken urteotan gehien sendotu den UEMAREN egitasmoetako bat izan da.

Azkenik, udalerrri euskaldunetara datozen ikasle berrientzako harrera planetan hizkuntzaren ikuspegia txertatzeko proiektu pilotua ere abian du UEMAK. Kanpotik datorrena bertakotzeko harrera hizkuntzatik egitea ezinbestekoa dela jakinda, udalak, ikastetxeak eta herrietako eragileak ere hartzen ditu kontuan. Datorren ikasturtean zabaltea da asmoa.

Hezkuntza formalean eragiteko UEMAre hiru zutabeak: hiru egitasmo.

HEDATU. Arnasguneei buruzko hezkuntza proiektua.

Udalerrri euskaldunak eta arnasguneak giltzarriak direla nabarmentzea da proiektuaren helburua, ikasleei, gurasoei eta irakasleei euskararen normalizazio prozesuan duten garrantzia ikusarazteaz gain. Hezkuntza komunitatean kontzientzia linguistikoa indartu nahi du, beraz, proiektuak.

Horretarako, hezkuntza arautuan, maila bakoitzera egokitutako eta urtero eguneratzen diren unitate didaktikoak eskura dituzte irakasleek zein ikasleek. Horrez gain, formazio-saio zehatzak ere eskaintzen dizkie UEMAK irakasleei eta gurasoei. Baita hainbat tailer ere Haur Hezkuntzako, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleei.

EUSKARA ETA KULTURARTEKOTASUNA udalerrri euskaldunetan.

Egitasmo honek bi helburu ditu: batetik, euskara komunikazio-hizkuntza izaten jarraitzea ikastetxean; bestetik, kanpotik heldu diren eta euskara ez dakiten herritarren ulermena erraztea eta haien parte-hartzea sustatzea, kulturartekotasunak dakarren aberastasuna nabarmenduta.

Euskara sustatzen du egitasmoak, bertako berezko hizkuntza delako, baina bide berriak ere bilatzen ditu, euskaraz ulertzen ez duten ikasle berriak eta haien familiak komunitatera hurbiltzeko eta komunitatearen parte aktibo izateko. Horrek eragina du gero euskararekiko atxikimenduan eta jarretan, eta baita erabileran ere.

HARRERA PROTOKOLOA. Ikasle berrien harrera hizkuntza ikuspegitik.

Udalerrri euskaldunetako ikastetxeetara heltzen diren ikasle berriak euskara bereganatuz bertakotzea da egitasmoaren helburua. Lehen harrerak berebiziko garrantzia du horretan. Are gehiago etorri denak tokiko harreman-sare propiorik ez duenean. Ondo errotzeko, hizkuntza oinarria da, eta horretan laguntzeko protokoloa lantzen ari da UEMA.

Bitartean, 9 puntuko dekalogoak du UEMAK irakasleek lehen harrera linguistikoa egiteko ikasleari eta familiari. Horrez gain, ikastetxeen esku jartzen ditu familiei banatzeko eskuorriak, hainbat hizkuntzatan, ongietorria eginez eta udalerrri euskaldunen eta euskararen berri emanez.

Tostartean, euskara eta kulturartekotasuna uztartuz

Lekeitioko Udalak eta UEMAK antolatuta, abestia eta bideoa sortu dute Lekeitioko Musika Eskolak, Azkue Natura Ikastolak eta Herri Eskolak, herriko dozenaka haurrekin.




Euskara eta Kulturartekotasuna egitasmoaren baitan, Lekeitioko Udalak eta UEMAK 'Tostartean. Jos dezagun Lekeitio denon artean!' abestia eta bideoa aurkeztu zuten azaroaren 10ean. Huntzaren 'Buruz behera' abestian oinarrituta, Naroa Ogandok sortutako hitzei distira atera diete Lekeitioko haurrek: *"Inor ez dago hemen sobera/ Txatal pila, hau da aukera/ Jostorraz eta_hari, arraun aurrera/ Urruneko zena orain (h)urre da"*.



Tostartean

Jos dezagun Lekeitio denon artean!



AMAIA ITURRIOZ ETXEBARRIA

Areatzako eskolako zuzendaria

“UEMAk hezkuntzarako dituen egitasmoak giltzarriak dira gure beharrei erantzuteko”

Amaia Iturriozek (Zornotza, 1967) ederki ezagutzen ditu UEMAK hezkuntzan eragiteko abian dituen egitasmoak. Areatzako eskolako zuzendaria da, eta azken urteotan UEMArekin eta Areatzako Udalarekin lankidetzan zenbait egitasmo lantzen ari dira eskolan, batez ere Hedatu hezkuntza proiektuarekin eta Euskara eta Kulturartekotasuna egitasmoarekin lotuta. Haur eta gazteei dagokienez, euskararen biziberritzean eragiteko hezkuntza sistemaren baliabideak nahikoak ez dituztela iritzita, oso eskertuta ageri da UEMArekin egitasmoekin eta laguntzarekin.

Noiz eta nolatan hasi zineten Areatzako eskolan UEMArekin egitasmoak lantzen?

Areatza UEMAKo kide da 2017az geroztik eta, beraz, UEMAK Hedatu hezkuntza proiektua sortu zuenetik izan zuen Areatzako eskolak proiektua erabiltzeko aukera. Hasieran ikasleekin lantzeko unitate didaktikoak izan ziren oinarria, baina ohartu ginen hezkuntza-komunitate osoan eragitea beharrezkoa zela, eta gurasoentzako eta irakasleentzako formazioa-saioak eta tailerrak ere egin izan ditugu UEMArekin. Beharrezkoak dira euskararen egoeraren kontzientzia hartzeko. Euskara eta Kulturartekotasuna egitasmoa, berriz, 2023-2024 ikasturtean hasi ginen lantzen. Familiarentzako formazio saio bat antolatu genuen 2022an, eta hizkuntzarengatik gatazka sortu zen. Izan ere, beste udalerrri askotan bezala, ikasle asko kanpotik etorritako herritarren seme-alabak dira Areatzan, eta horrek eragina zuen euskara erabiltzerakoan. Euskara eta Kulturartekotasuna egitasmoaren berri izan genuenean UEMArekin jarri ginen harremanetan, eta harrezkero egindako bidea oso aberatsa izan da. Eskola eta familien arteko harremanak ez ezik, herria bera ere aldatzen ari da egitasmo honi esker.

Zer da zehazki UEMAK eskolari eskaintzen diona?

Hezkuntza proiektuan, ikasleak, irakasleak eta gurasoak kontzientziatzeko unitate didaktikoak, formazio-saioak eta mailaz maila lantzeko tailerrak.



“Hezkuntza sistemak eskaintzen dizkigun baliabideak ez dira nahikoa udalerrri euskaldunetan ditugun beharrei erantzuteko”

Euskararen egoera ulertzeko eduki soziolinguistikoa, azken batean. Euskararen erabilerak behera egin du haur eta gazteen artean, eta horrelako egitasmoak giltzarriak dira gure beharrei erantzuteko. Kontzientzia hartzeko, testuingurua ulertzeko eta hizkuntza baten aldeko hautua justifikatzeko lanabesak eskaintzen dizkigu UEMAK.

Azken urteotan, gainera, asko dira kanpotik etorritako familiak eta ikasleak. Horietako askorentzat arrotza da euskara, eta horrek eragina du gero herriko hizkuntza-ohituretan. Hori guztia ondo egin behar da, harrera zainduz, kulturartekotasuna landuz eta ikasle eta familia berriei euskara eskainiz. Gaur egun, ordea, hezkuntza sistemak eskaintzen dizkigun baliabideak ez dira nahikoa udalerrri euskaldunetan ditugun beharrei erantzuteko. Beraz, UEMArekin egitasmoak laguntza handia dira guretzat. Giltzarriak dira gure beharrei erantzuteko.

Euskara eta kulturartekotasuna

Euskara eta kulturartekotasuna eskoletan lantzeko jarraibideak

‘Euskara eta kulturartekotasuna’ egitasmoa ikastetxeetan lantzeko jarraibideak eta irizpideak biltzen dituen koaderno argitaratu du UEMAK, talde eragileentzat

Euskara eta kulturartekotasuna egitasmoa abiarazi zuten UEMAK, HUHEZIK (Mondragon Unibertsitatea) eta herriko hainbat eragilek Zaldibiako Lardizabal eskolan, 2021-2022 ikasturtean. Harrezkero, proiektuaren garrantziaz eta beharraz ohartuta, ikasturtez ikasturte egitasmoa zabaltzen joan da, eta gaur egun UEMAKo kide diren 31 herritako 45 ikastetxetan ari dira lantzen.

Ikastetxe horiei proiektuaren inguruko oinarritzko informazioa ahalik eta ulerterrazenean eman nahian, egitasmoaren nondik norakoak zehatz-mehatz biltzen dituen koaderno argitaratu du UEMAK, egitasmoa eskoletan lantzeko jarraibideak eta irizpideak bilduta. Koadernoak lan-tresna izaera dauka, eta hezkuntza-komunitateetan proiektua gidatzen duten talde eragileak autonomiaz aritzeko baliagarria izan dadin sortu du UEMAK.

Koadernoaren edukia baliagarria da proiektuan parte hartzen duten ikastetxeetako ordezkariarentzat, irakasle eta hezitzaileentzat, familia-elkarteetako kideentzat eta udaletako ordezkari eta teknikariarentzat, batez ere euskara eta aniztasun arloetan aritzen direnentzat. Horregatik koaderno horietako talde eragileei helarazi die UEMAK udazken honetan, tokian tokiko bileretan.



Argitalpena.
Euskara eta kulturartekotasuna ikastetxeetan.
Jarraibideak eta irizpideak
Orrialdeak: 128.

Beste herrialdeetatik etorri eta ostalaritzan eta merkataritzan lanean ari diren euskaldunak ikusarazteko kanpaina

Beste herrialdeetatik Euskal Herrira etorri, euskara ikasi, eta jendaurrean aritzen diren tabernariak, zerbitzariak eta dendariak ikusarazteko ‘Egin nirekin ere euskaraz!’ kanpaina egin du aruten UEMAK. Gainerako herritarrek langile horiekin ere euskaraz egitea eta aurreiritziak gainditzea izan da kanpainaren helburua.

Arabiera, wolofera, errumaniera, urdua, portugesa, sardiniera edo gaztelera da kanpainen parte hartu duten lagunen lehen hizkuntza, baina euskara ikasi dute, eta euskaraz aritzen dira bezeroekin.



SALTO! UDALEKUA



Udalerrri euskaldunetako 120 gazte Baliarraidik Idiazabalera, udaleku ibiltarian

Bederatzi egunez Baliarraidik Idiazabalerako bidea egin ondoren, uztailean amaitu zen udalerrri euskaldunetako gazteen Salto! udalekua. Aurten ere 120 gaztek hartu dute UEMAK antolatutako ekimen ibiltarian, eta gustura itzuli dira, lagun berriak eginda eta ezagutzen ez zituzten herriak eta bazterrak zeharkatuta, Baliarrain, Zaldibia, Ataun eta Idiazabalen barrena.

Aurten, 2007 eta 2010 urteen artean jaiotako gazteek izan dute udalekuan parte hartzeko aukera, eta ia bezala aurten ere bi txanda izan dira: ekainaren 22tik 30era, eta uztailaren 2tik 10era. Azken urteotan bezala izena eman duten guztien artean zozketa egin behar izan du UEMAK, hainbat irizpide kontuan hartuta.

Udalerrri euskaldunetako gazteak euskararen inguruan sentsibilizatzea, kontzientziaztea eta eragile aktibo bihurtzea da udalekuaren helburua, eta horretarako egitarau oparoa prestatzen du UEMAK, Hezten aisialdi elkarteko hezitzaileen ardurapean. Aurten ere, balorazio positiboa egin du UEMAK: "Oso gustura gaude parte hartu dutenen artean sortu den giroarekin, eta udalerrri euskaldunetako gazteen artean sortu diren sareekin".



Udalerrri euskaldunetako gazteak ahalduntzeko teknika eta proposamena

Larrabetzuko gazteen hizkuntza-errealitatea aztertu eta udalerrri euskaldunetako gazteak ahalduntzeko proposamena ondu du Unai Riobook UEMaren ikerketa bekaren laguntzaz

Udalerrri euskaldunen ikerketa, garapena eta egoera soziolinguistikoaren ezagutza jendarteratu nahian, Iñaki Arregi ikerketa beka abiarazi zuen UEMAK 2019an. Ordudanik, bi urtean behin, arlo horiei buruzko proiektuak lagundu ditu diruz, eta asmo horrekin aurkeztu zuen hirugarren deialdia ere, Eusko Jaurlaritzaren babesarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Euskalgintzaren Kontseiluaren laguntzarekin.

Unai Riobook larrabetzuarrak eskuratu zuen hirugarren deialdiko beka, eta aurten amaitu du zegokion lana. Larrabetzuko errealitatea esanguratsua delakoan, bertako gazteen hizkuntza-ohiturak ulertzeko hainbat kontu ikertu ditu: gazteen identitatea, ohiturak, hizkuntza-gaitasuna, ideologia eta euskalki edota erregistro desberdinekiko dituzten pertzepzioak.

Izan ere, Larrabetzu, herri euskalduna izan arren, azken urteetan euskararen erabilerak

beheranzko joera nabarmena izan du, bereziki gazteen artean. Horren arrazoiak ikertu ditu egileak gazteak elkarriketatzu.

Ikerketaren helburua ez da izan errealitatea jasotzea soilik, gazteen ahotsa erdigunean jartzea eta gazteak ahalduntzea baizik, gainerako udalerrri euskaldunetan ere aplikatu daitekeen erudia proposatuz. Izan ere, ondorio nagusiak orokorrak direlakoan dago ikerlanaren egilea:

- Gazteek euskara herriko nortasunarekin lotzen dute eta aldeko jarrera nabarmena dute.
- Testuinguruaren arabera hizkuntza-praktikak nabarmen aldatzen dira. Eremu batzuetan gaztelaniak indar handia du.
- “Nahi den hizkuntza erabiltzeko askatasuna” diskurtsoak indarra hartu du gazteen artean, baina aldi berean euskara babestea ere beharrezkotzat jotzen dute.

“Gaitasunak eta gizarte-arauak baldintzatzen dute gazteen hizkuntza-hautua eta hizkuntza-erabilera”

Unai Riobook Azkue | Iñaki Arregi ikerketa bekaren irabazlea

Zergatik erabaki zenuen Larrabetzuko gazteen egoera hartzea oinarritzat ikerketa udalerrri euskaldunetara zabaltzeko? Larrabetzun, euskararen kale erabilerak nabarmen egin du behera azken urteotan gazteen artean, baina ez da kasu isolatua, udalerrri euskaldunetako errealitatearen isla baizik. Horregatik, beste herrietarako ere baliagarria izan daitekeen teknika-proposamen bat eratu nahi izan dut.

Zer izan da gehien harritu zaituena gazteek euskararen inguruan adierazi dutenetik? Zer nabarmenduko zenuke batez ere? Erabiltzen duten hizkuntzagatik, helduek, gurasoek zein irakasleek etengabe epaitzen dituztela, gazteen testuinguru eta egoera ulertu gabe. Horrek gero eragin izugarria du gazteen hizkuntza-autoestimuan.

Zer egin behar da gazteak euskaraz bizi ahal izateko? Zein da lehen pausoa? Gazteen hizkuntza hautua eta erabilera gaitasunak eta gizarte-arauak baldintzatzen dute. Beraz, tokian tokiko eta udalerrrian udalerrriko gazteen errealitatea beraien eskutik ezagutzea izan beharko litzateke lehen pausoa.



Argitalpena.

Herriko gazteak ikerlari.
Egilea: Unai Riobook.
PDFan, osorik:

labur.eus/IBeka2025

Arnasguneetako ikasleen sormena eta bideogintza uztartzen dituen Arnasetik lehiaketak erantzun ederra izan du ikasturte honetan ere

Baliarrain, Berriatua, Ikaztegieta, Leitza eta Mutrikuko ikasleen bideoak saritu dituzte.

Euskararen arnasguneen eta udalerrri euskaldunen garrantzia nabarmendu nahi duen Arnasa Gara kanpainaren harira, laugarren aldiz Arnasetik bideosormen lehiaketa antolatu dute ikasturte honetan UEMAK, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak, udalen eta eskolen laguntzarekin. Arrakastatsua izan da deialdia, eta 10 eta 16 urte arteko ikasleek 206 lan aurkeztu dituzte.

Sormenaren bidez, kategoria bakoitzean egoera zehatz bati erantzuteko eskatzen zaie gazteei, eta nabari da ariketa gustukoa dutela. Izan ere,

lagunekin, ikaskideekin edota bakarka sortzeko aukera eskaintzen du lehiaketak, eta lagunartean antolatzeko eta ikasteko modu ederra da.

Lan guztiak arnasagara.eus webgunean eta ekimenaren YouTube kanalean daude ikusgai.

Horien guztien artean, Baliarrain, Leitza eta Mutrikuko ikasleen lanak saritu ditu aurten epaimahaiak. Guztira 3.583 boto jaso dituen publikoaren saria, berriz, Berriatuako ikasleek jaso dute. Azaroaren 27an banatu zituzten sariak, Leitza Herri Aretoan egindako ekitaldian.



Azaroaren 27an Leitza Herri Aretoan egindako ekitaldian jaso zituzten sariak aurten bideo irabazleen egileek.

Euskarazko ikus-entzunezkoak zabaltzeko hitzarmena, EITBrekin

UEMAk eta EITBk elkarlanerako hitzarmena sinatu dute aurten lehen aldiz, udalerrri euskaldunetan euskarazko ikus-entzunezkoak areago zabaltzeko asmoz.

Azken ikerketek argi erakutsi dute euskarazko kultur kontsumoa erdarazkoen oso azpitik dagoela. Euskal Herri osoan gertatzen da hori, baita udalerrri euskaldunetan ere. Gazteen ikus-entzunezkoen kontsumoari buruzko ikerketek ere azalarazi dute pantaila erdarazko edukia ikusten dituztela batez ere haurrek, nerabeek eta gazteek, eta horrek eragin nabaria du gero hizkuntza-ohituretan.

Hori aldatzeko giltzarria da euskarazko eskaintza zabaltzea, eta ildo horretan urrats berria egin nahi



izan dute aurten UEMAK eta EITBk, otsailean sinatu zuten elkarlanerako hitzarmena baliatuta. Hitzarmen horri esker, besteak beste Primeran! plataformako eduki zehatzak emateko, edota *Go!-azen* eta *Irabazi arte!* telesailen denboraldi berriak estreinatzeko aukera izan da aurten UEMAKo kide diren herrietako gela eta areto publikoetan.

Bisitariari euskararen herrira datozela gogorarazteko kanpaina

‘Bertatik bertara’ kanpaina egin du UEMAK, bisitariari eta zerbitzu sektoreko eragileei euskararen garrantzia ikusarazteko.

Bisitariak zein bisitariekin harremana duten zerbitzu sektoreko arduradunak eta langileak euskara aintzat hartzera gonbidatzeko kanpaina egin dute uda honetan ere udalerrri euskaldunetan, seigarren aldiz. Horretarako hainbat baliabide eskaini dituzte UEMAK eta bertako kide diren dozenaka udalek, eta 300.000 mahai-gaineko inguru banatu dituzte udalerrri euskaldunetako taberna, jatetxe eta ostatuetan.

Mahai-gainekoan, bisitariarentzako oinarritzko hiztegiak eta euskarazko musika zerronda batera bideratutako loturaz gain, sei euskal herritarren bideoetarako QRak ere ageri dira, azalpenak sei hizkuntzatan entzun ahal izateko.

Bertatik Bertara kanpainarekin, udalerrri euskaldunen nortasuna egokien islatzen duena euskara dela nabarmendu nahi izan du uda honetan ere UEMAK, ekainetik irailera.

BERTATIK BERTARA

Mari Marron. Euskal Herria. Azpeitia.	Maria Manera. Katalunia. Oiartzun.	Ashlyn Simmons. Alaska, AEB. Asteasu.
Lucia Conzi. Argentina. Markina-Xemein.	Laurent Richard. Frantzia. Arbuz.	Begoña Rey. Galizia. Zarautz.

Euskaraz, katalanez, ingelesez, gazteleraz, frantsesez eta galizieraz entzun daitezke aurtien kanpainaren azalpenak.



Euskaraz ez dakiten gurasoentzako ikastaro berriak, eskolan bertan

Ikastaro praktikoak prestatu dituzte UEMAK, AEK-k, IKAK eta udal euskaltegiek, gurasoek eskolan bertan ikas dezaten euskara, doan.

Kanpotik heltzen diren bizilagun berriei euskara ikasteko erraztasunak eman nahian, ikasturte honetan gurasoen beharretara egokitutako ikastaroak prestatu dituzte UEMAK, AEK-k, IKAK eta tokian tokiko udal euskaltegiek. Helburua da gurasoek seme-alaben ikasketa prozesuan bidelagun izateko baliabideak izatea eta harremanetarako “oinarritzko ezagutza” eskuratzea.

Euskara eta Kulturartekotasuna egitasmoa lantzen ari diren herrietan egin dute UEMAK eta udalek taldeak sortzeko ahalegina, eta erantzun ederra izan du ekimenak: 200 gurasok baino gehiagok eman dute izena. Urrian hasi ziren ikastaroak, eta 150 ordukoak izango dira. Astean bina orduko bi saio eskaintzen zaizkie. Ikastetxean bertan eta eskola-orduetan, doan.



HELEGITEAK LANPOSTUEI

Usurbilek, Astigarragak eta UEMAko zenbait udalek helegiteak jaso zituzten, lanpostu batzuen hizkuntza eskakizunak gehiegizkoak direla iritzita. Helegiteen helburua beldurra sortzea dela salatu zuen UEMAK.



HITZARMENA EITB-REKIN

Euskarazko ikus-entzunezkoak zabaltzeko hitzarmena sinatu zuten lehen aldiz UEMAK eta EITBk.



EGIN NIREKIN ERE EUSKARAZ!


Beste herrialdeetatik etorri eta ostalaritzan eta merkataritzan lanean ari diren euskaldunak ikusarazteko kanpaina abiarazi zuen UEMAK.

ERRENTA EUSKARAZ

Errenta aitortpena euskaraz egiteko deia egin zuten UEMAK, udalek eta hainbat erakunde publikok.



ABIZENA ERE EUSKARAZ



Abizenak euskalduntzeko kanpaina egin zuten udaberrian UEMAK eta hainbat udalek.

EUSKARAREN GAKOAK



Hamaika Telebistak eta UEMAK **'Euskararen egoera ulertzeko gakoak'** bideo-sorta aurkeztu eta zabaldu zuten, lau haizetara.

OLDARRALDIA

Euskararen aurkako epai gehiago iritsi ziren, eta euskarak benetako lege-babesa behar duela nabarmendu zuen UEMAK.

ARNASGUNEAK HIZPIDE

Arnasguneen garrantzia izan zen hizpide Iruñean, Hizkuntza Aniztasuna Sustatzeko Europako sareak antolatutako jardunaldian.

ETORRI EUSKARARA!

Euskaraz ez dakiten gurasoen beharretara egokitutako ikastaroak aurkeztu zituzten AEK-k eta UEMAK.

BOST UDAL GEHIAGO



Donamaria, Ibarangelu, Mundaka, Mutiolo eta Ormaiztegi gehitu ziren UEMARA.

BERTATIK BERTARA

Bisitariei eta zerbitzu sektoreko eragileei euskararen garrantzia ikusarazteko udako kanpaina egin zuen UEMAK, udalen laguntzarekin.

SALTO UDALEKUAK



120 gaztek hartu zuten parte, bi txandatan, Baliarraidik Idiazabalerako udaleku ibiltarian.

URTARRILA

OTSAILA

MARTXOA

APIRILA

MAIATZA

EKAINA

EUSKARA 2036an

UEMAren enkarguz Siadecok egindako proiektio demolinguistikoak egundoko oihartzuna izan zuen hedabideetan eta ondorioek kezka sortu zuen euskaltzaleen artean.

HERRITARRAK, KALERA

Azken epaiak salatzer eta euskararentzat justizia eskatzera ehun bat herritan milaka lagun atera ziren kalera UEMAK deituta. Deialdiak oihartzun handia izan zuen hedabideetan.



ALKATEEN AGERRALDIA



200 alkate eta udal ordezkari bano gehiagok ere euskararen aurkako oldarraldia eta azken epaia salatu zuten, auzitegiaren aurrean.

MATRIKULAZIO KANPAINA

Ikasturte berria hastearrekin batera, euskaltegien matrikulazio kanpainarekin bat egin du UEMAK aurten ere, herritarren alfabetatzean eta etorri berrien formazioan oinarritzakoak direlako.



ESNATU ALA HIL

'Esnatu ala hil. Euskararen oraina eta geroa diagnostiko baten argitan' liburua aurkeztu zuten Iñaki Iurrebasok eta Gari Goikoetxeak. Ordezkaritza handia elkartu zen liburuaren aurkezpenarekin.



NAZIOARTEKO KONFERENTZIA



Arnasguneei buruzko nazioarteko lehen konferentziak hizkuntza gutxituetako adituak eta euskaltzaleak bildu zituen urrian.

FINANTZA ERAKUNDEAK



Udalerrri euskaldunetako bulegoetan euskara lehenesteko hitzarmena eguneratu eta berritu zuten UEMAK eta 59 udalek, hiru finantza erakunderekin.

ARNASETIK LEHIAKETA



Arrakastatsua izan da aurten ere Arnasetik bideo-sormen lehiaketa. 205 lan aurkeztu dituzte ikasleek, eta azaroaren 27an Leitzan banatu zitzaizkien sariak aurtengo irabazleei.

URDIAIN ETA ZEBERIO

Abenduaren 13an Etxarri Aranatzen egindako batzar nagusian, bi herri gehiago batu dira UEMARA: Urdiain eta Zeberio.



UZTAILA

ABUZTUA

IRAILA

URRIA

AZAROA

ABENDUA

Aduna · Aizarnazabal · Ajangiz · Alegia · Alkiza · Altzaga · Altzo ·
Amasa-Villabona · Amezketa · Amoroto · Anoeta · Antzuola · Araitz · Arama ·
Aramaio · Arano · Arantza · Arantzazu · Arbizu · Areatza · Areso · Arrankudiaga-
Zollo · Artea · Arruazu · Asteasu · Astigarraga · Ataun · Atxondo · Aulesti · Azkoitia ·
Azpeitia · Bakaiku · Bakio · Baliarrain · Basaburua · Baztan · Beizama · Bera ·
Berastegi · Bergara · Bermeo · Berriatua · Berrobi · Bidania-Goiatz · Busturia · Deba ·
Dima · Donamaria · Doneztebe · Ea · Elduain · Elgeta · Errezil · Etxalar · Etxarri
Aranatz · Etxebarria · Ezkio-Itsaso · Gabiria · Gaintza · Gatika · Gaztelu · Getaria ·
Gizaburuaga · Goizueta · Hernani · Hondarribia · Ibarra · Ibarangelu · Idiazabal ·
Igantzi · Igorre · Ikaztegieta · Irura · Itsasondo · Ituren · Izurtza · Lakuntza ·
Larrabetzu · Larraun · Leaburu-Txarama · Legorreta · Leitza · Lekoitia · Lekunberri ·
Lesaka · Lezo · Lizartza · Mallabia · Mañaria · Markina-Xemein · Mendaro ·
Mendexa · Mundaka · Munitibar · Mutiloa · Mutriku · Muxika · Oartzun · Oñati ·
Ondarroa · Orendain · Orexa · Orío · Ormaiztegi · Orozko · Otxandio · Segura ·
Tolosa · Urdiain · Usurbil · Zaldibia · Zarautz · Zeanuri · Zeberio · Zegama · Zerain ·
Zestoa · Ziortza-Bolibar · Zizurkil · Zumaia



**120 udal eta
355.000 biztanleko
lurgune euskalduna**

EUSKARA eta URTE BERRI ON!



tme/hemeroteka